

**ADMINISTRAZIOA ETA EUSKARA (1)****I. Gaiaren aurkezpena:**

Aspaldi honetan, euskarak, gizarte modernoko alor guztietan bidea egin nahirik dihardu. Azken hogetabost urteotan, ikastolak direla bide, urrats sendoak eta iraunkorrak eman dira irakaskuntzan. Alor horretan, zer orraztu baldin badago ere, euskarak egina du dagoeneko bere bidea. Gaur egun, gai zeharo ezberdinak eta era guztietakoak irakasten dira euskaraz haurtzaindegietan hasi eta Unibertsitateko goi mailetaraino.

Baina gizakion bizimodua alor ezberdinetan gauzatzen denez, euskarak ere alor bakoitzeko preminei erantzuteko baliabide egokia izan behar du etorkizunerako iraupena sendotu nahi baldin badu.

Pertsonok, gizarteko harremanak zabaldu eta ugaritu beharra izaten dugun adinean, hizkuntzaren erabilera berriak ikasi beharra ere izaten dugu. Hala gertatzen zaigu bizi gareneko ingurugunea aldatu beharra dugunean. Baserritik hirira aldatu denak, aurreko bizimoduan ageri ez ziren gauza berriak aurkitzen ditu, hala nola, *espaloiak, igongailuak, geltokiak, semaforoak...* hitz berriak ikasi beharra duela.

Batzuetan, erabiltzen ditugun hitzak, gauza oso orokorreki dagokielako, oso orokorrak dira, hala, *aita, atea, etxea, iturria, ohea, oinetakoak* (baserrian zein hirian erabiliak) baina beste

batzuetan, orokorrak izan arren ezezagun edo arraro egiten zaizkigu euskaraz, orain arte gaztelaniaz baino ez ditugulako erabili, hala, *NAN, Helbidea, deitura*... (DNI, dirección, apellido...). Eta hori eguneko hogeitalau orduak euskaraz dihardutenei ere bai, ez ditugulako inoiz halakoak euskaraz erabili.

Horrek, eguneroko bizitzako harreman batzuetarako euskara erabiltzen dugula eta beste zeregin batzuetarako erdarara jotzen dugula ematen digu aditzera. Bizitzako alor handi batetan, orain arte erdara hutsean egitera behartuta egon garenez, hutsune handia nabari dugu, euskaldun alfabetatuak garenok ere. Administrazioa deitzen dugun alor hori, gainera, guk uste duguna baino askozaz zabalagoa da, gizarteko antolamendu barruko harreman guztiak barne hartzen ditu eta.

Seme-alaba ikastetxean matrikulatzea, etxean obraren bat egitea, erosi den automobila ibilbidean jartzea zein bestelako edozein baimen ofizial eskuratzea dela eta, Administrazioarekin harremanak eduki behar. Harremanok, gainera, geroago eta ugariagoak eta estuagoak dira, edozertarako paperak eskatzen zaizkigu eta. Euskara hutsean bizi nahi izanez gero, Administrazioak barru duen crema zabal hori ere euskaldundu egin behar.

Idazlan honetan, beraz, oso-osorik inguratzen gaituen administrazioan euskarak dituen arazoak plazaratu nahi ditut, gutxienez, gaiaren zailtasunez eta larritasunaz jabetzeko.

## **II. Euskarari Administrazioan lekua egitea.**

Inoiz zerbait egin izan bada ere (aintzinako Batzar Nagusietan edo gerra aurrean) alor hau oso gutxi erabilia izan da euskaraz. Behinik behin Administrazio zibilari dagokionean. Eleizak gehiago erabili izan du euskara, berean. Hala ere, bateo-liburuak eta gaztelera idatzita daude.

Esan bezala, ahalegin batzu lehenago egin izan badira ere, batez ere azken hamar urte hauetan eman izan zaio hasiera Administrazioan euskara erabiltzeari, gehienetan tokian-tokiko irtenbidea bilatuz.

Zeregin hori, bestalde, gehienbat, itzultzaileen bidez burutu izan da, une honetan udal batzuk bitartekorik gabe zuzenean euskara hutsean diharduten idazkari euskaldun alfabetatu batzu badituzte ere. Horrela, harremanik gabe jokatzekak sakabanaketa handia eta nahaste izugarria sortu izan du, bakoitzak ahal izan duenaren arabera, borondaterik onena erabiliz, bere hiztegia egitea edo erabiltzea ekarri izan duela.

Eguneroko bizitzan gertatzen ez den bezala, Administrazioako hizkera, bakoitzak bere erara erabiltzeko nahaste-borraste handia sortzen du. Eta ulertezintasuna ere bai. Horrela, esaterako, batek *egitismo*, besteak *egitamu*, hemengoak *plan*, hangoak *burupide*, hurrengoak *egitarau*, haragokoak *egin-gogo* edo *egin nahi* gauza berari deitzea, ikasiezina eta nahasbide gertatzen da. Eta honelakoak oso ugari ditugu bazterretan!

Ageriko denbez, honakoak adiera batetan erabiltzen duena harakoak beste batetan erabiltzeko zein alderantziko jokerak ulertezintasuna sortzen du. Beraz, inon euskara standarrrik edo baturik erabili beharra baldin badago (irakaskuntzan bezala) Administrazioan izango da. Onartezina egiten da gazteleraz testu bakarra izan eta euskaraz, Aldundi, Eusko Jaurlaritza eta Udaletan hiru edo lau era ezberdinetan ematea.

Orain artean, gordin-gordinki, harako kakanahaste handi modura aurkeztu izan dudana, Administrazioako euskara, korrante nagusi biren inguruan gorpuztu izan da, ondorioz arazoa adigai edo lexema pare baten artean hautatzera mugatzen delarik. Egin ere, Administrazioan itzulketa lanetan dihardugun gehienok aukeraketa egin dugu korrante bataren zein bestearen alde, eguneroko preminek eraginda;

a) Alde batetik, Josu Oregi Jaunak Eusko Legebiltzarreko testuak euskaraz jarri ahal izateko bere kasara eratu zuen Hiztegi nagusia. Hiztegi honen kume izango da HAEE (Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea) deritzanak ateratakoa ere. Bertako bigarren jarraitu izan diote: Eusko Jaurlaritzaren Aldizkariko itzultzaile gehienek (direla bi urte arte), Lege Biltzarrekoek, Bizkaiko

Batzar Nagusikoek, Bizkaiko Aldundiko batzuk, Bizkaiko zenbait udaletakoek, orokorrean, HAEE-ren inguruan dihardutenek.

b) Beste aldetik, UZEI-ELHUYAR-UEU-EHU-HIZTEGIA 2000-EUSKARARAKO HIZTEGIA deituetak teknikaiek eginiko bidea. Bide honi jarraitzen diote: AEK-HABE-koek, Ikastoletarako testu egileek, Gipuzkoako Itzultzaile gehienek, Hiriburuetako itzultzaileek, itzulketak egiten diharduten Gipuzkoako zein Bizkaiko lantaldeek, Nafarroako Gobernuko itzultzaile taldeak, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako Aldizkari ofizialek, Bizkaiko Aldundiko itzultzaile gehienek, Legegizon eta Notarien elkarte-koek eta abarrek.

Argi nabari da zer-nolako itxura itxusia ematen duen halako nahasteborrasteak, jendeari euskaraz inoiz erabili ez dituen hitzak eskaini behar eta hitz bakarraren bidez egin beharrean, bi, hiru edo gehiago erabiliz egiten dihardugu-eta. Bide batez, argi gera bedi (nahasketak maiz gertatzen dira eta) beste zerbaite dela itzulpenen egokitasun eta duintasunaren arazoa, euskara jator erabiltzen jakitean edo ez jakitean datzana.

### III. Konponbide bila

Guzti honen aurrean, aspaldidanik entzun izan dira irtenbide bila eginiko dei larriak. Hala ere, norik bereari eutsiz, ez da orain arte inor ausartu arazoari aurre egitera. Azkenean, egoera negargarri zein lotsagarri hori zela eta, Erakundeetara zuzendutako eskariek, zenbait aldageta tarteko izan direla, oihartzuna jaso dute Euskararako Kontseiluan eta bideak urratzeari ekin diote.

Lehen urrats gisa, urtero, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundietan argitaratu izaten den *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Aitorpena* aurkezteko jendearen esku jartzen diren inprimakiak eta liburuska, erizpide berdintsuak erabiliz bateratzea izan da, itzultzaileen arteko zenbait bilera egin ondoren, onerizpena eskatuz Euskaltzaindiari aurkeztu zaiolarik.

Lehen urrats horren osagarri gisa, gerora garrantzi handia izan dezakeen Lanegun batzu ere izan dira aurtengo Ekainaren 8 eta

9an Gasteizen, HABE-Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, *Administrazioa eta euskara, administrazio-hizkera eta terminologiari buruzko lanegunak* izenburupean antolatuta.

Ezinezko gertatzen da, honelako idazlan labur batetan bi Lanegun horietan irakurri, entzun eta esandakoak biltzea. Hala ere, gutxienez, baieztapen nagusienak jaso nahi nituzke, berri emateko ez ezik problematika honen nondik norakoez jabetu zaitezten.

Jarraiko lerroetan, bada, hiru txostenen inguruan idatzirik azaldu ziren ideia nagusienak, ahalik eta zehatzen bilduta, aurkezten dizkizuet hausnarketa-gai zabala eskaini nahieran.

### **1. Administrazioko euskararen hizkera-mailak eta terminologia arazoak.**

#### **A) ANDRES URRUTIA (Txostenegilea; Ondarroako Notarioa)**

- Zer esanik ez dago, hizkera juridiko-administratiboak tratamendu berezia eskatzen eta suposatzen du erabiltzen dutenen artean eta era berean heziketa edo formazio berezia.

- Beste hizkuntza normalizatueta arrunta den hizkera juridiko-administratibo hori errazteko bidean direla eta bere ahalak eta lerrak egiten dituztela, euskarak ez du lortu gutxienezko mailarik ere mundu honetan, ez da hurrik eman ere.

- Ez du izan, ez, euskarak erabiltzeko tradiziorik zuzenbide munduan ez eta zuzenbide propiorik, eta are gutxiago ezein hizkuntzak zeregin hauetarako galdatzen duen standarizazio mailarik.

#### *Euskara juridiko-administratiboaren nondik norakoak*

1) Euskarak ez du tradizio juridiko-administratiborik. Topikoa izan arren, egi hutsa bihurtu den zertxobait da baieztapen hau.

Euskarak bakantasun linguistikoa, inolako ahaidetasunik gabekoa du. Inguruko beste hizkuntzek, erro baten altxor ia amaigabea eduki dute. Latinaz ari gara noski. Hori horrela

izanik, nazioarteko arauen egokiera ere zail jazotzen da euskararen kasuan, erreferentzi hizkerak oso bestelakoak bait dira.

- 2) Aurrekoarekin lotuta, euskara «standard» finkatu baten eza nabarmen da. «Standard» hori finkaturik egongo balitz, garbi dago standard horren funtzionamenduak franko erraztuko ligukeela bidea eginkizun hauetan.
- 3) Euskarak soziolinguistikoki duen arazo latza. Ehuneko hoge-tabosta euskalduna delarik, gizartean erabilera gutxitu honek galera zuten du erabilera zabal baten aukera eta behaztopatzen du gune berezi batzuen sorrera, dela gai juridiko-administratiboetan dela bestetan.
- 4) Euskaraz gaur egun argitaratzen den edukin juridikoa, itzulpenaren bidezkoa izatea. Testu juridiko-administratiboak zein ekintzak edo jarduerak erderatik itzulpenak dira kasurik gehientsuenetan, espresabide eta azken funtsean muina bera, erdeldunak direla, euskarazko «bertsioak» besteen isladak direla.
- 5) Lege markoa ere ez da aproposena. Euskara juridiko-administratibo honek iturburuen aniztasuna jasaten du (Eusko Jaurlaritza, Aldundiak, Udalak eta bestelako erakundeak) sarri, guztien artean sakabanatze irudi itzela ematen dutelarik. Agintaritzaren bakoitzaren itzultze taldea jokoan izanik testuen anarkia nabari da.
- 6) Arazo bihurtzen da euskararen euskalkien erabilera ere, onuragarri izango bait litzateke euskalkien erabilera hori (batez ere ahozko harremanetan) gutxienezko standartzazio baten barne.
- 7) Oso argi dago euskarak, finkapen eza dela medio, hizkuntz mailetan duen eskasia. Euskal administrazioan sortzen ari den mintzairak, kasurik gehientsuenetan ez dauka erantzuteko gaitasunik.

Erdaraz hizkuntz mailak aspalditik finkaturik daude eta hizkerak idatzia eta berbatua desberdinak diren heinean, eskola ere

badugu, eta lege gizonek ere beren eskola, honen bidez eman dute.

Bestaldetik ere hiztegia edo morfojoskerako hutsunea nabaria da, ez bait dakigu, legegizon tartean behintzat, gauzak nola esan eta nola gureganatu.

*Euskararentzako erabilpen-eremuan dauden zeregin ugariak.*

- 1) Euskarak mundu juridiko-administratibo honen barne, bere gune, bere espazio propioa bilatu behar du, epe ertainerako itzulpena beharko dugula lagun zer esanik ez, baina testu propioak sortzeko mekanismoak asmatuz.
- 2) Sortu behar dugun euskara juridiko-administratibo honek halako hitzarmen zabal bat, denon aldetirakoa, eskatzen du, aurreko iritxiak ahaztuz euskara juridiko-administratibo egoki bat sortzekoa. Eta egoki esan dudanean esan nahi izan dut erabilgarria bai agintearen aldetik, bai hiritarren aldetik edo profesionalen gunetik. Alde egin behar dugu erderakadetatik zein perifrasis ulergaitzetatik, oreka baten bilaketan.  
Horretarako ez daukagu beste erremediorik, eta hitzarmen horren barne, honako hauek aintzakotzat hartzea baino:  
-Euskararen altxorra lehen mailan behinik behin ustiatzea eta ikertzea.  
-Latinetik edo erderatik berbak eta esamoldeak hartzea baina ez edonola.  
-Hitzen sorkuntzari buruz kontuz jokatzeta.  
-Plangintza orokor bat egitea, sailez sail.
- 3) Plangintza honen kokapenak eskatzen ditu, oraindik orain azaldutakoari jarraikiz, bi ardatz nagusi: euskara molde juridiko-administratibo bat sortzea, eta sorketa honetan oreka bat eskuratzea, euskararen berezitasunik alboratzeke.

Eta guztien gaineratik, plangintza honen erdigunean, gizartea bera eta gizarte horren partaideak lekutzen dira, alperrikakoa bait da honelako ekintzarik, gizartearen partaidetzarik gabe.

Hauteskunde garaian euskararen alde entzun ohi ditugun oihuak errealitate egiteko ordua alabeharrez heldu zaigulako.

**B) JON AGIRRE** (Erantzulea; HAEBB-ko teknikaria)

- Hainbat administrazio-ereduren artean, gurearen helburua eta izateko arrazoi bakarra herritarrari zor dion zerbitzua ahalik eta ondoen ematea da.
- Hizkera espezializatuak mamitzeko, hizkuntzak standarda behar du, zientzia eta teknika-hizkuntza guztien oinarri ezinbestekoa bait da aldaera supradialektal hori.
- Gure inguruko hizkuntza erraldoiek aspaldi gauzatu zuten hizkuntza-aldiera standarda batez beste bostehunen bat urteko ohitura dutelarik Administrazioarako euren hizkuntza erabiltzen.
- Administrazio-hizkuntza ez da hitzun adituen artean soilik erabiltzeko, aditua ez den eta izan beharrik ez duen herritarrak ere parte hartzen bait du, gehienetan hartzaile bezala, modu pasiboan beraz.
- Euskal administrazio-hizkuntzak euskara standardetik hurbil egon behar du, hizkuntza eroso eta ulergarria taxutuz, herritarrentzako. Euskarazko eskaintza atsegina ez bada, elebitasunari esker alboan duen erdarara joko bait du zerbitzua euskaraz eman nahi diogun herritar elebidunak. Irakurtzen ez badigute ez du ezertarako balio gainerako guztiak.
- Zehaztasuna eta argitasuna ez daude elkarren kontra, alderantziz baizik: osagarriak dira.
- Profesionalen handi nahikeria ere arrisku bizia da. Euskara jagia edo jaso, maila gorenekoa, sortu nahia lege eta administrazio-arloko erderaren pare, ezorduetan ibiltzea baizik ez da.
- Administrazioeko testuetan, ahozkoetan, baina idatzizkoetan ere bai, zilegi ez eze, beharrezkoak ere badira azalpenak. Sinonimia kaltegarria da, antzekoak baina ezberdinak diren gauzakiak izendatzeko nahastea badakarkigute, baina onuragarria da beste kasuetan.

- Euskal Herrian administrazio-itzulpenaren helburua euskaldunok mezua euskaraz ulertzea da eta ez, inondik inora, euskarazko testuaren bitartez erderazkoa identifikatzea.
- Euskarak Administrazioarako duen pobretasuna gainditzeko, beste hizkuntzek bezela, hiru bide ditu:
- Naturala: Norbere hizkuntzaren baliabideetara jotzea.
- Klasikoa: Kultura-hizkuntza zaharretara jotzea (latina eta grekoa)
- Mendebaldekoa: Inguruko hizkuntza modernoen irtenbide bateratuak onartzea. Hiru bide haiek ez daude aukeran, bata ala bestea; denak behar ditugu, hurrenkera horretan.

**C) JOSE LUIS ETXEBARRIA** (Erantzulea: E. Legebiltzarreko itzultzailea)

- Irizkide naute euskal administrazio-hizkerarik ez dagoela oraindik, ez eta euskal administrazio-hizketarik ere diotenek.
- Bat nator itzulpena dela nagusi, eta ez euskerazko sorkuntza eta honi loturik barbarismoa, kalkoa eta gaztelaniarekiko mirabe, moiroi eta jopu dugula esaten dutenekin.
- Espainiako ereduko lege eta administrazioetan gabiltza eta horrela jarraitu beharrean izan arren menpekotasun hori neurri handian hautsi eta katigutik jarein litekeela esango nuke.
- Gauza ez bait da hitza nahiz esaldia euskaraz «nola esaten/esango/esan behar» den jakitea, adierazi behar dena itzulpena irakurriko edo jasoko duenari ahalik eta erarik ulergarrienez aditzera ematen saiatzea baizik.
- Administrazio-hizkera berezia sortzen joateko abiapuntu egozia izango litzateke, hitz edo esaldi bat euskaraz esatera jo beharrean, itzuli beharrekoaren esanahitara jotzea.

- Taiuzko ezer egiteko, lehenengo eta beste ezer baino lehena-go, administrazio eta legealorrean orain artean itzuli eta argitaratutako guztiaren husketa egin behar da.

## 2. Arazo ez-linguistikoak administrazio arloko terminologian

### A) GOTZON EGIA (Txostenegilea; Gipuzkoako F. Aldundiko teknikaria)

- Terminologia orokorra, eta areago erabilera berezietarako terminologia finkatzea hizkuntzaren standardizazioaren alderdi bat besterik ez dela esan dezakegu.
- Hizkuntza standardizazio osoaren zati denez, terminologia finkatzen bi prozesu kontrajari baina osagarriren indar-neurriaren mende dago:
  - a) Standardizazioak eredu bateratua sortzeko helburua duenez nolabaiteko murriztapena dakarkio hizkuntzari, lekuan lekuko mintzaira edo «euskalkien» ikuspegitik begiratuta.
  - b) Standardak nolabaiteko mintzaira edo «euskalki» berria sortzen du, hizkuntzaren erabilpen eremu berrien baldintza eta beharren arabera.
- Terminologi lanak ez dira oso aspaldikoak Euskal Herrian. Hiztegigintza orokorraz gaindi arlo espezializatuetakoa lexikoa lantzea gauza berria dugu gure artean.
- Terminologia hizkuntza plangintzazko erabaki «handien» zordun den heinean, aitortu beharra dago euskal terminologia lan askok gauzak «ex novo» egiteko tentazioa izan duela.
- Terminologiaren standardizazioan bi ikusmolde posibleren arteko desberdintasuna nahi nuke azpimarratu:
  - a) *Ikusmolde «utilitarista»*: jakintza arlo zehatz bateko adituek beren iharduera profesional eta intelektualean sortutako izkribuzko lanetatik abiatzen dena, usadio labur edo luzea-

goaren indarrez nola edo hala «finkatu» diren terminoen azterketa eta ebaluaketa duelarik ikertresna maitatuena.

b) *Ikusmolde «abanguardista»*: galzori-arriskuan den hizkuntzak noizpait (berr)erakusteko dituen erabilpen-eremuei aurrea hartu nahi diena, ordurako beharrezko izango den corpus lexikala aldeztu aurretik prestatuz, hizkuntza lehiakidean eta orobat hizkuntza «modernoetan» diren terminoen parekoak sortu nahirik.

• Terminologiaren azterketa ongi egin nahi badugu hizkuntza-  
ren erabilpen baldintzak kontutan hartu behar ditugu:

a) *Komunikazioaren baldintzak*: termino jakin baten ulergarritasun edo erabilgarritasuna komunikazio faktoreen mendeko dago.

b) *Igorlearen baldintzak*: administrazio arloko terminologia sortu, erabili, hedatu edo/eta standardizatzeko gaitasuna duen igorleak bere langintza horretan dituen muga eta beharrak argitu behar dira.

c) *Hartzailearen baldintzak*: xede berezitarako hizkuntzak berekin dakarren terminologia berriaren jasotzailearen ezaguerri sozio-kultural eta linguistikoak aztertu behar dira.

• Oro har, halako lege bat definitu daiteke: termino edo formula horien standardizazio-maila zenbat eta txikiagoa, orduan eta komunikaziorako arazo haundiagoak. Terminoen eta esaldien erreferentzia eta definizioa zahazkabe edo lausoa baldin bada, eta haien ulerkuntza etengabeko erabilpenak finkatutako mugak esparruak argitzen ez badute, komunikazioa okerrean, oztopoz eta zailtasunez beterik egongo da.

• Komunikazioa jarraiko baldintzok mugaturik aurkitzen da:

-Hartzaileak testu moduan jasoko du ia beti administrazioaren mezua, eta testu horretatik nahiz haren testuingurutik erakarri beharko ditu mezua xehetasun guztiak. Oro har bi euskal-

dunetik bakarra da administrazioak jatorriz nahiz itzulpen-  
bidez sortutako euskarazko mezua (horren barnean terminolo-  
gia noski) era egokian jaso eta mamitu dezakeena.

Administrazioaren mezuen hartzaile potentzial horien alfabe-  
tatze maila eta kalitatea nolakoa ote da?

-Igorleak termino, aldagai eta hautabide anitzen artean hartzai-  
leak erraz eta ezker ulertuko dituen begiz jotako baliabideak  
erabiltzeko gai izan beharko du. Administrazioa euskerazko  
produzkoak begi bistako bi ezaugarri nagusi ditu: a) berezko  
produzio gutxi dago; b) itzulpenak neurrigabeko pisua dauka.  
Urtean milaka orrialde batzuk argitaratzen ditu administrazioak  
euskaraz. Baina milaka orrialde horietatik zenbat dira bestelako  
bitartekotzarik gabe eta jatorri-jatorrian euskaraz sortu direnak?  
Bizitzako alor guztietan nagusi, euskara duen arduradun poli-  
tiko edo teknikari gutxi, oso gutxi, dago euskal administra-  
zioan... Hortik atera beharko ditugu zenbat diren arestian  
aipatutako «milaka orrialde» horietatik euskaraz mundura jai-  
otakoak. Beraz, Administrazioak euskaraz argitaratzen duenetik  
zatirik haundiena itzulpen-bidekoa da. Administrazioan euska-  
ra itzulpen-bidezko hizkuntza izateak ondorio latzak dakartz-  
la aitortu beharko dugu:

-Itzultzea da de facto euskararen aingeru guardakoa adminis-  
trazioan. Badirudi ere administrazioan euskaraz egiteko eran-  
tzunkizuna itzultzaileak beste inork ez duela.

-Itzulpena norabide bakarrekoa da, gazteleratik euskarara.

-Administrazio arloko euskara ia osorik itzulpen-bidezkoa iz-  
ateak ondorio linguistiko gordinak ditu, hizkuntzaren erabiltzai-  
leen artean kutsadura sortzen baitu.

-Guzti honi itzulpegintzak egun administrazioaren baitan duen  
antolakuntza oso eskaza erantsi behar zaio.

### 3. Hizkuntza bakarretikako itzulpenez eta bestez.

#### A) IBON SARASOLA (Txostenegilea; Euskaltzaina)

- Kaltegarria ez da, berez, itzultzea, itzulpen guztiak hizkuntza beretik egitea baizik. Zeren hizkuntza bakarretikako administrazio testuen itzulpenak dakarkigun arazo nagusia hau da: ez digula ikuserazten itzulgaia egituratzen duen adigai-sistema ez dela inondik inora ere «orokorra», hots, nazioartekoa, baizik eta hizkuntza jakin horri bi bider-edo lotua.
- Guztiz beharrezkotzat jotzen dut frantziar administrazio-munduko hainbat dokumenturen itzulpenari ekitea. Itzulpenok Iparraldeko adituak egin beharko lituzkete. Hori egiten ez den bitartean, Hegoaldean egiten ari garen normaltze-ahaleginak jatorrizko bekatu baten marka eramango du aldean.
- Bi administrazio-munduaren -espainiarraren eta frantziarraren- eta ez baten, mendean gaudela gogoan hartzea ezinbestekoa dugu euskal administrazio-hizkuntzaren arazoari nazio-duintasan gutxienerako batez aurre egingo badiogu.
- Oro har, adigai jakin baterako, idatziz gehien erabili izan den hitza onartu beharko genuke.
- «Gaizki eraturako hitza» delako irizpideak ez du zentzurik. Horrelako hitzetan ere erabilerak, eta ez bestelako argudioak, izan beharko luke delakoen egokitasunaren irizpide.
- Azken urteotan azpiratzen dugun diglosia egoeraren hizkuntz ondorio kaltegarriak kontuan izan beharko genituzke egungo «euskara biziaz» edo «herriaren euskaraz» aritzeko orduan.
- Erdal hitz bat ezin daiteke onar, berez, benetan nazioarteko ez bada. Nazioartekotasun-maila gutxiengoa espainolak eta frantsesak berdin erabiltzen dituzten hitzak osatzen dute.
- Gure egoeran dagoen hizkuntza batek, salbatuko bada, garbizailea izan behar du.

- Nere eskarmentuak erakusten didanez estatuz estatu baliakideak diren adigaiak ez dira jendeak uste duen bezain ugariak.
- Kontu honetan nere ustez erabili beharko genukeen irizpidea hau da nazioarteko diren adigaiei axola nagusia eskaiñi, euskal hizik egokienak eta erabilgarrienak haien ordainak edo kideak emateko erabiliz.
- Ez nuke zalantzarik izango hitz egokirik aurkitzen ez denean parafraasietara jotzeko. Parafraasiak dira edozein hizkuntzatan adigai eratorriak emateko bidea.
- Alferrikakoa-edo da ezer moldatzen hastea alde aurretik ingelesak nola moldatu duen aztertu gabe: a)hizkuntza erromani-koak baino hurbilagoa gertatzen zaigulako. b) gauzak adierazteko frantsesak -eta batez ere espainolak- ez bezalako naturaltasuna azaltzen duelako.
- Badirudi, zientzi testuetan ez bezala, administrazio-testuen itzulpenen automatikotasun-maila aski apala dela, hots, oso gutxitan finka daitezkeela banakako erlazioak bi hizkuntzen arteko elementuen artean.
- Administrazio-testuen itzultzailearen lana sortze-lana da, hitz eta esapide bakoitzarentzat hura agertzen den esaldi eta per-pausaren zentzu berezia aztertuz soilik egin daitekeena.

**B) XABIER KINTANA** (Erantzulea: E.H.U.-ko irakaslea hiztegi-  
lea)

- Garai guztietako erabilerak ontzat hartzea, garaian garaiko tes-tuingurua kontutan izan gabe, bestalde, maiz arriskugarria bezain engainagarria gertatzen da, hor kasuistika ugari ezkuta-tzen baita.
- Euskaltzaindiaren aburuz, bestalde, hitz beniak asmatzean, beroriek beti ere, hizkuntzaren egiazko eta ohizko legeen arauera egin beharra dago.

- Nik neuk garrantzi handia ematen diot aspaldion asmatu-  
rik hitzen kasuan, hitz horien oinarritzko elkartze edo erator-  
tze-zu-  
zentasunari.
- Administrazio-euskaraz ari garenez gero, ez genuke ahaztu  
behar nolabaiteko administrazio propioa duen Euskal Herria-  
ren atal bakarra alde honetakoa denik. Gauza jakina da, bestal-  
de, euskara idatziaren erabilerari daoakionez, literatur tradizioa  
askoz ere hautsiagoa eta ahantziagoa dutela aspaldion han  
hemen baino.
- Nik dakidala behintzat, euskaldunok betidanik izan dugu ingu-  
ruko hizkuntzen erduetatik kalkoak egiteko joera, eta gaur  
hain jatortzat ditugun eskuarki, *zeregin, egitekoa, noiznabi edo  
nabi bezala*, kasu, inguruko *maintenant, affaire, gebacer,*  
*cuando quiera edo como quiera* bezalakoetan oinarritu zen.
- Oraindik, bizi garen egoera honetan, hurbileko erdaren errefe-  
rentzia maiz baliagarriago gerta dakigukeela, gure xede eta imi-  
taburua, etorkizunari begira, pixkanaka aldatuz joan daitekeen  
arren.
- Hortaz, arriskugarria da oso, -itzulpenak ez baitira beti erdara-  
tik euskarara egín beharko!- gure terminologia eta gainean  
dugun estatuarena homologaturik ez egotea, zehaztazunik  
ezagatik lege-gizonen buruhausteak ikaragarriak gerta daitez-  
ke eta.
- Nik biziki sentitzen dut Iparraldekoen artean, hango oitura po-  
litiko-administratiboengatik *boz/botua* bikotea ez bereiztea,  
baina gurean *boza ba du, baina ez boturik* bezalako zehazta-  
sunak guztiz beharrezkoak ditugu eguneroko bizitzan. Gauza  
bera esan nezake, *erretiratu* eta *jubilatu* artean, ia-ia bizkaita-  
rrok gure *neba/anaia* edo *batzamar/behatz* bikoteaz nabari-  
tzen dugun ezberdintasuna bera gertatuz.

**C) IÑIGO LAMARKA** (Erantzulea; F.H.U.-ko Fakultateko irakaslea)

- Administrazio-hizkuntza Zuzenbideari dago zuzenean lotuta, honek ekoizten dituen arau eta aktoetan bizi bait da.
- Euskara, baina, une honetan ez da zuzenbide-hizkuntza eta ez dirudi urte askoren buruan gauzak aldatuko direnik.
- Euskarak zuzenbidean duen rola gaztelaniaren (edo frantsesaren) menpeko izatea da. Eta hau honela da ez Euskadi Estatu independente ez delako edo ordenamendu juridiko propioa ez izateagatik, baizik eta arauak erdaraz datozkigulako, euskal erakunde politikoez sortzen dituztenak barne.
- Arazoa, dena den, larriagoa da. Euskara, Zuzenbide eta Administrazio munduan hizkuntza sekundarioa, menpekoa, ez sortzailea izateaz gainera, ez da komunikazko hizkuntza, hau da, ia inork ez du erabiltzen. Argiago oraindik, euskara boletín ofizialetan eta administrazio-idatzietan edergailu bat besterik ez da.
- Aurrekoa zergatik gertatzen da? Bata, errazagoa egiten zaigulako gaztelaniaz irakurtzea; bigarren arrazoi bat: seguritate juridikoa... euskaraz ez dagoelako oraindik hizkuntza juridikoa landuta (ez gara terminoetan sikiera ados jarri). Hitz bat hiru modu desberdinetara itzulia izan da euskaraz).
- Dena den, hesparru honetan hiru hizkuntz maila bereiz gerozake:
  - *Arau eta kontzeptu juridikoak:* Zeregin honetan ordenamendu bakoitzak dauzkan hizkuntz egiturak eta kategoriak errespetatu behar dira. Ereinu honetan euskarak ez du inolako ahalmen sortzailerik ere.
  - *Administrazioa:* Exekuzioan kontzeptu juridikoek garrantzia galtzen dute eta maila honetan euskara ez legoke erdarari hain lotuta.

- *Administrazioko barremanetan* bada, azkenik Zuzenbidea-ekin zerikusia ez duen hizkuntza (informazio, publizitate-ekintzak...). Maila honetan, euskarak ez du erdararekiko inolako menpekotasunik izan behar.

- Itzulpegintza, hiru mailetan erabat desberdin planteatzen zaigu. *Lehenengoan*: ia-ia hitzez-hitzezkoa behar du izan. *Bigarrenean*, berriz, itzulpena askoz libreagoa izan daiteke beste hizkuntzetan erreferentzia ahalik eta egokienak eta erabilienak bilatuz. *Hirugarrenean*, azkenik, erdararekiko menpekotasuna ez daukagunez gero euskarazko administrazio-hizkuntzak erregela propioak izan behar ditu.
- Bukatzeko, hizkuntzaren «garbitasuna»ren arazoa planteatzen zaigu behin eta berriro. Nire ustetan kuestio honetan helburu nagusia ulergarritasuna beharko litzateke izan. Administrazio-euskara praktikoa, ulerterra eta sinplea behar dugu, benetan erabiltzea nahi badugu bederen; gaurregun ez ditu inork aldizkari ofizialak euskaraz irakurtzen. Honetarako, dena den, lexikoa eta sintaxia erraztu egin behar dira zeren eta hizkuntza zaila gertatzen bazaio administratuari ziur egon gintezke gaztelanira edo frantsesera joko duela.

**D) PATXI URIBARREN** (Erantzulea; Bizkaiko F. Aldundiko itzul-tzailea).

- Guk bestetara nahi baldin badugu ere, itzultzeko ematen zaiguna itzuli behar dugu. Eta ahalik eta zehatzen, gainera. Horrek, bereizketak egin beharra eskatzen du zenbait kasutan.
- Perifrasia erabiltzea, aditza nominalizatuak erabiltzea bezala zilegi ez ezik zenbait kasutan oso aberasgarri gerta daiteke. Hala ere, urteetako esperientziak, era berean, aldapa oso irris-korra dela erakutsi izan dit.
- Itzulpenak hizkuntza bakarretik eginez jokatzekak badu arriskurik, batez ere Euskal Herria bezala hizkuntza bitan diharduten administrazioek inguraturik bizitzean. Batez ere, batasun-bide izan beharko lukeena banaketa-bide bihur daitekeelako.

- Ongi ikusten dut frantziar administrazio-munduko hainbat dokumentu itzultzeari ekitea. Dena den, honetaz ez gabiltza larrugorritan, hiztegien alorrean behinik behin. UZEI-k bere hiztegi gehienetan gaztelania eta frantsesa eskaintzen dizkigu.
- Idatziz gehien erabilia izan den hitza onartu behar bagenuke ere zer-nolako tradizioa duen ikusi beharko da eta Euskal Herrian zehar benetako hedapena izan duen ala ez.
- Gaizki eraturako hitzen artean alde handiak daude. Batzu, txarto sortuak izateaz gain oso gutxi erabiliak izan dira. Honetan galbahaketa egin beharra dagoela uste dut.
- Oreka lortu beharko da, euskara txukuna, garbia, jatorra egite-rakoan, herriko hiztunen eta administrazio-ko hizkuntzaren artean etenik gerta ez dadin.
- Garbizaleak izan behar badugu ere, arazoa garbizaletasunaren mugak zehaztean legoke. Agian, teoria mailan onar daiteke. Zer-nolako emaitzak lortzen ari garen ikusi behar!
- Euskaraz, aintzina eta gaur egun ere egin dira itzulpen oso egokiak ingelesik jakin gabe. Ez dezagun ahaz euskararen morfologia eta fonetika (jokera hizkuntza gehienetan hainbatetan hurbilekoa baita) latin eta beraren alaben inguruan garatu izan dela.

#### **IV. Ondorioak:**

Aurkeztu ditudan pentsamendu ugariak laburbilduz, honakook gogoratuko nituzke, arazoaren zertzelada nagusien agergarri:

-Euskarak ez du orain arte benetako lekurik izan administrazioan, horrek epe laburrera mendeetako atzeramenduari aurre egin beharra dakarrelarik.

-Euskarak ez ditu oraindik zehaztuta, inguruetako hizkuntzek bezala, administrazio barruko hizkuntza-mailak ere, beraz

nahasbide eta oztopo gertatzen dela.

-Une honetan administrazioan egiten den euskararen erabilera gehiena itzulpen bidezkoa da, horrekin batera ezinbestekoa gertatzen delarik testuak euskaraz sortzea.

-Itzulpen hutsez aritzeak (batez ere hizkuntza bakarrekoa bada) euskara kutsatzeko eta narratzeko arriskua sortzen du.

-Euskaldun alfabetatu gutxi izatea ere eragozpen larri gertatzen da, sarritan egiten ari den lanak alferrekoaren kutsua izaten du eta.

-Oreka bilatu beharra dago administrazioeko hizkuntzaren eta herrikoaren artean, euskara ulerkorra eta erabilkorra sortzeko, jendeak onartzen ez badu ahalegin guztiak hutsalak izango baitira.

-Egungo nahasteari irtenbiderik emateko, ezinbestekoa da kontzentzu bidez administrazioarako euskara standard bakar bat egitea, une honetako sakabanaketa kaltegarria konponduz.

Gorago esan bezala, hurrengorako uzten ditut aurkeztu berri ditudan arazoei irtenbide konketuak ematera zuzendurik egin ziren gainerako txostenetako proposamenak.

*Patxi Uribarren*